

Caritasek kanpaina berri bat abian jarri du bere nazioarteko lankidetzaproiektuei laguntza ekonomikoa emateko

"Guztia ikusteko gertu egon behar da", da leloa.

"Guztia ikusteko gertu egon behar da" lelopean, Espainiako Caritasek urtero mundu osoko 60 herrialde baino gehiagotan garatzen dituen nazioarteko lankidetzaproiektuei laguntza ekonomikoa pribatua emateko urtero zabaltzen duen asmo handiko kanpaina abiarazi du.



Espainian, hamarkada batean zehar, gizarteak, krisiak sortutako bazterkeria-egoeren aurrean erakutsi duen elkartasun jarrera eskuzabalaren ondoren; Caritasek, herritarren eta kolaboratzaile pribatuen interesa suspertzeko erronkari heldu nahi dio munduko eskualde askotan dauden presazko ezegonkortasun egoerei erantzuna emateko.

Finantza-egonkortasuna indartzea

Helburu horrekin, kanpaina honekin, Espainiako Caritasek nazioarteko lankidetzaproiektuen finantza-egonkortasuna indartzea du xede; egun, mundu osoan pobrezia egoeran dauden 1.565.000 pertsona baino gehiagori laguntzen die.

Kanpainaren mezuaren ardatza, pertsona pobretu horien bizitzako historiak izango dira. Lehen urte honetan, hiru errealitate zehatz aintzat hartuko ditu: Brasil, Etiopia eta Tailandia. Kanpainak proposatutako mezuek, oso modu erakargarrian, herrialde horietako estereotipoekin jolasten du (inauteriak, kafetegiak, hondartza xarmagarriak), bai eta Caritasek lurralde horietan ematen diren egoera bidegabeegi ematen dien erantzuna ere.

Kanpainak mikrosite bat du, non Caritasek herrialde horietan eskaintzen dituen nazioarteko lankidetzako programei buruzko datuekin batera, gure lankide eta kolaboratzaileak —**Vitoria Garofalo** Tailandian, **Riccardo Rabita** Etiopian eta **Lucero Guillén** Amazonian— lanean ari diren komunitateen eguneroko errealitateari buruzko beren kontakizun pertsonala egiten dute.

Gainera, webgune honek, Caritasen lankidetzaproiektuei ekarpen ekonomikoak egiteko aukera ematen du, eta baita, era jakin batean, bertako Caritasekin batera, komunitate ahulduenetan, pobreziaren aurkako estrategiekin konprometitzea ere.

30 milioi euro 60 herrialdetan

Espainiako Caritas konfederazioak ia 30 milioi euro bideratu ditu azken urtean nazioarteko lankidetzatalera, eta, bide batez, Afrikako, Asiako, Latinoamerikako, Ozeaniako eta Ekialdeko Europako 60 herrialdeetan baino gehiagotan, proiektu ugari finantzatu ahal izan ditu.

Garapen ekintza horien bidez, Hegoaldeko komunitateentzat hain premiazko diren arazoei erantzun zehatzak eta azkarrak ematea ahalbidetzen da; besteak beste, larrialdiei giza-erantzuna ematea; nekazaritza eta abeltzaintza, eta nutrizio programen bidez, elikadura arloko segurtasuna bermatzea; klima aldaketaren ondorioei aurre egitea (edateko ura eskuratzeko, desertizazioari aurre egiteko, eta hondamendi naturalei aurre egiten dieten proiektuak); emakumeen ahalduntzea kreditu eta aurrezki programen eskutik; lanerako prestakuntza, heziketa eta osasun eskuragarritasuna;

etxebizitzak eraikitzea, migratzaileei harrera, bai jatorrizko tokian, bai zirkulazioa ere; edo gatazkak pairatzen dituzten lurraldeetan bitartekaritza eta bakearen eraikuntzaren aldeko lanei babesa ematea.



Emaielen kopurua handitzea.

Funtsezkoa da jarduera guzti honen iraunkortasun

ekonomikoa bermatzea. Horregatik, hegoaldeko herrialdeetako pertsonen bizibaldintzak, duintasuna eta eskubideak hobetzeko konpromisoa hartzeko prest dauden Caritaseko emaile eta laguntzaile pribatuen kopurua handitzea da **“Guztia ikusteko gertu egon behar da”** kanpainaren helburu nagusia.

Horretarako, publiko berri, eta emaile-profil gazteago bat lortzeko asmoz, kanpainaren zabalkundea, batik bat, komunikazio digitaleko euskarri arinago eta zuzenak dituzten sare sozialen bitartez egingo da.

Caritas, prekarietate eta bazterkeria handieneko egoeren alboan dago, ahulenen beharrak laguntzen ditu; kanpaina honi esker, gure mugetatik kanpo dauden milioika pertsoneri ere gure hurbiltasuna eta solidaritatea behar dutela erakutsi nahi du. Egiaren alboan egoteko, dena ikusi behar baita.